



Sagardotegiek ixtea erabaki dute eta, ondorioz, txotx denboraldia bertan behera geratu da

📅 Mar 13, 2020 🌐 Museoak, Sagardotegiak 💬 0 comments



ASTIGARRAGAKO UDALAREN PRENTSA OHARRA

Atzo eta gaur udalak eta sagardogileek egin dituzten bileren ondotik, Astigarragako sagardotegiek erabaki dute ixtea. Ondorioz, 2020ko txotx denboraldia aldi batez bertan behera geratu da.

Koronabirusaren gaixotasuna zabaltzea ekiditeko neurrien haritik, Astigarragako Udala harremanetan ibili da Osasun Sailarekin, izan ere, sagardotegien txotx denboraldian Astigarragan jendetza ibiltzen da eta sagardotegira joateak kontaktu maila handia dakar (mahaien bueltan, upeltegian eta abar), sagardotegietan eta herrian. Osasun Sailak ez du eman ostalaritzaren arloko establezimenduak mugatzeko edo ixteko erabaki edo gomendiorik.

Martxoaren 12an eta 13an (atzo eta gaur) sagardogileekin egindako bilera eta elkarrizketetan gaia aztertu ondoren, sagardotegiek erabaki dute ixtea eta, ondorioz, 2020ko txotx denboraldia bertan behera geratu da.

Halaber, **txotx denboraldiarekin lotutako beste hainbat zerbitzu ere bertan behera geratu dira: sagardotegietarako bus zerbitzua, puntu morea eta Sagardoetxea eta bere agenda.**

Udalaren iritziz sagardotegiek erantzukizunez eta arduraz jokatu dute eta bat egin dute Astigarragako herria (eta Euskal Herria orobat) hartzen ari den erabaki eta neurrien norabidearekin, denon ardura eta egitekoa delako koronabirusaren gaixotasuna ez zabaltzeko behar diren neurri guztiak hartzea.

Bilatzailea

Kategoriak

Agenda

Argitalpenak

Azokak

Berriak

Ekitaldiak

Erakusketak

Esperientziak

Formazioa

Gastronomia

Historia

Kultura

Lehiaketak

Museoak

Sagardoa

Sagardotegiak

Sagarra

Sagastia

Turismoa

Artxiboak

ZATOZ ETA GOZATU

**SAGARDOAREN
LURRALDEA**
el territorio de la vida

Kale Nagusia, 48

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

Privacidad - Condiciones

LAGUNTZA BEHAR DUZU?

☎ 943 550 575

JARRAI IEZAGUZU...



ESPERIENTZIAK

Zure plana erreserbatu

Hautatutako ibilbideak

Beste proposamenak hemendik gertu

Nola mugitu

Non lo egin

Gidak eta informazio praktikoa

SAGARDOTEGIAK

Sagardotegia erreserbatu

Sagardotegia aukeratu

Garraioa sagardotegietara

Sagardotegiaz gozatzeko gomendioak

SAGARDOETXEA

Sagardoetxea – museoa

Erakusketa eta bisita guneak

Bisita motak

Nola iritsi eta sarbideak

Tarifak eta ordutegiak

Bisita erreserbatu

Bisita birtuala

Dokumentazio Zentroa

SAGARDO FORUM

Informazio orokorra

Argazkiak

Hitzaldiak

AGENDA

BLOGA

HEDAPENA

Boletina

Buletinera harpidetza

Sare sozialak



© 2020 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua

LEGEZKO INFORMAZIOA

NOR GARA

PROIEKTUAK

AKORDIOAK

KONTRATATZAILEAREN PROFILA